

ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA

Urkomeko zuzendaritza batzordea berritu da, elkarteen ordezkaritza aldatu da. Horrela da egungo eratu berri den zuzendaritza batzordea:

LEHENDAKARIA: HITZEZ elkarte
 LEHENDAKARI ORDEA: AZKOITIKO udala
 IDAZKARIA: AZPEITIKO udala
 DIRUZAINA: AIAKO udala
 BOKALA: BIOLUR elkarte
 BOKALA: NEKATUR elkarte
 BOKALA: URKAIKO kooperatiba
 BOKALA: ORIOKO udala
 BOKALA: ZESTOAKO udala
 BOKALA: EHNE sindikatua
 BOKALA: LURGINTZA kooperatiba



PLASTIKO BILKETA

Urkomek, 2026rako maiatzera arterako SILO-BOLA-PLASTIKOen bilketa zerbitzuko egutegia osatu du. Bilketa hileko 2.astartetan izango da. Gogoratu plastikoak bezperan atera behar direla jasotze puntura arratsaldeko 5etatik aurrera.

HILABETEA	EGUNA
URTARRILA	13
OTSAILA	10
MARTXOA	10
APIRILA	14
MAIATZA	12

LANDA MERKATURANTZ: UROLA KOSTAKO LANDA EREMUKO ENPRESAK MERKATURATZEKO AHALDUNTZEN



Enpresak Babesten programaren barruan eskatutako diru-laguntzarekin egingo den proiektua da.

Urola Kostako landa-eremuko mikroenpresek beraien bezeroa estrategiaren erdigunean kokatzea da Landa Merkaturantz proiektuaren helburua; hala lehiakortasuna, salmentak eta jasangarritasuna hobetuz. Planteamenduak lau jarduera-ardatz uztartzen ditu: entzutea, definitzea, aktibatzea eta partekatzea.


Proiektu praktikoa eta parte-hartzailea da, landa-eremuko mikroenpresen beharrekin zuzenean konektatzen dena, eta diagnostikoa, prestakuntza aplikatua, lankidetzeta eta ekintza uztartzen dituen.

BASERRI DIGITALA 2.0

Digitalizazioa, automatizazioa eta hidroponia nekazaritzan. Baserri Digitala 2.0, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz 2025 programak lagundutako proiektu bat da. Lurralde mailako erakunde ezberdinek: Zubigune Fundazioa-k, Asmoz Fundazioa-k, Ehneler-ek eta Urkome-k elkarlanean martxan jarritako ekimena da Baserri Digitala 2.0.

Proiektu honek, baratzezaintza teknifikatua eta hidroponia bultzatzea, irtenbide berritzaile eta jasangarri gisa du helburu.

Digitalizazioak, nekazaritza tradizionala osatu, optimizatu eta dibertsifikaziorako aukera berriak irekitzen ditu.



ESNE ETA ESNEKI MAKINA AZKOITIAN

Urkomek, Azkoitiko udalaren aldetik lur zoru lagapena lortuta, Berdura Plaza kanpo aldean, baserriko esnea eta esnekiak saltzeko makina bat jartzeko lehiaketa urrian atera zuen.

Proiektu bakarra aurkeztu zen, Errezilgo Urraki esneak ekoizleari esleitu zaio.

Otsailean zehar makina martxan egotea aurreikusten da.



IX. LANDAOLA SARIAK

Martxoak 6an, Mendaroko San Agustin kulturgunean, Landaola Sarien bederatzigarren edizioa ospatuko da.

Beste edizioetan bezala, lau sari banatuko dira: erakunde pribatua, erakunde publikoa, ibilbidea eta emakumeak landa eremuan.

Urkomeko hautagaiak hauek dira:

- Erakunde pribatua: Amaia Alberdi, Luzaro Errezilgo Azoka (Errezil-transformazio gunea.)
- Erakunde publikoa: Beizamako udala, Bizi Beizaman (etxebizitzaren sustapena).



[Urkome Urola Kostako Lge](https://www.facebook.com/urkome.uro.la.kosta.ko.lge)



[urkome](https://www.youtube.com/urkome)



urkome@urkome.eus



[@urolakosta](https://twitter.com/urolakosta)



[@urkome_lge](https://www.instagram.com/urkome_lge)



www.urkome.eus



943816500

Plaza Nagusia, 11-1.solairua, 5.bulegoa
20730, Azpeitia